



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2015eko abenduaren 16an, **412** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

“IKUSIRIK: Barrundiako Udalak, 2015eko Aurrekontu Orokorren baitan, Udaletxe berriko (Iduia jauregia) Plazan Skate pista berria eraikitzea esleitu zuen.

GERTUA IZANIK: Skate pista berria eraikitzeak, Iduia jauregiaren erdian zegoen instalazioa aldatzea behartu du, honenbestez, Barrundiako Udalak 2015eko azaroaren 3ko 317. erabakiaren bidez, Plaza horren erdigunea egokitzeko lanak esleitu zituen.

GERTUA IZANIK: Behin lanok bukatu ostean, mantenimendu lan ezberdinak egitea beharrezkoa da, gehien bat lurra eta lorak hornitzea.

GERTUA IZANIK: Ilur Garden (Ernesto Alzola Mugika jauna) merkataritza-etxeari aurrenean aipatutako lan horiek gauzatzeko aurrekontua eskatu zaio.

GERTUA IZANIK: Ilur Garden (Ernesto Alzola Mugika jauna) merkataritza-etxeak, 2015eko abenduaren 14ko dataz (2.175. sarrera erregistroa), egitasmo horri dagokion aurrekontua aurkezten du, beronen zenbatekoa 1.081,31 €takoa izanik (BEZ barne).

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 171.221.099 aurrekontu-sailean nahiko diru dago gastu horri aurre egiteko.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginaren 138.3 artikuluan zehaztutako kontratu txikietan, espedienteak gastua onartzea eta dagokion faktura espedienteari gehitzea besterik ez du behar.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koa, 138. artikulua arabera, kontratu txikiak 50.000 eurotik beherakoak izango dira, baldin eta obra-kontratuak badira, eta 18.000 eurotik beherakoak, bestelako kontratuak badira.

KONTUAN HARTUZ: Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkotzeko Legearen 21.1.f) artikulua xedatutakoa.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- Goian aipatutako egitasmoa onartzea.

BIGARRENA.- Ilur Garden merkataritza-etxeari (Ernesto Alzola Mujika jauna), Udaletxe berriko (Iduia jauregia) Plazako erdigunean mantenimendu lan ezberdinak egitea esleitzea, gehien bat lurra eta lorak hornitzea

Esleipenaren zenbatekoa 1.081,31 €takoa da (BEZ barne).



HIRUGARRENA.- Esleipena 171.221.099 aurrekontu-sailaren pentzutan egiten da.

LAUGARRENA.- Honako erabaki hau Ilur Garden merkataritza-etxeari (Ernesto Alzola Mujika jauna) jakinaraztea, halaber Udaleko arkitektoari eta arkitekto teknikoari.

Era berean, erabaki hau Udalaren kontratatzailearen profileen argitaratzea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut Afro Olabe Mtz. de Albeniz Alkatearen oneritziarekin, Ozaetan 2015eko abenduaren 16an.

O.E.
ALKATEA

